

Aldez aurreko kontsulta publikoa honi buruz: Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko asmoz, Ikus-entzunezko arte grafikoetako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikariaren tituluaren curriculuma egokitzeko foru dekretuaren proiektua prestatzeko prozeduraren hasiera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkaritza handiena duten erakundeek puntu hauei buruz:

- A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- B) Arau horren onespeneren premia eta egokitasuna.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Dokumentu honek helburu du indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133.1 artikulua mahaigaineratzen dituen gaiei konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere, Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko asmoz Ikus-entzunezko arte grafikoetako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikariaren tituluaren curriculuma egokitzeko foru dekretuaren proiektuari buruzko aldez aurreko kontsulta publikorako, arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta herritarrek, oro har, aukera izan dezaten parte hartzeko eta ekarpenak egiteko.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Foru dekretu honen bitartez ezartzen dira Ikus-entzunezko arte grafikoetako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikariaren titulua eskuratzea ahalbidetzen duen goi mailako heziketa zikloaren egitura eta curriculuma. Honako curriculum honek urriaren 11ko 1430/2012 Errege Dekretua garatzen du, hain zuzen ere Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari titulua ezarri eta haren gutxienezko ikasketak onetsi zituen dekretua, Arte plastikoaren eta diseinuaren arloko lanbide ikasketen antolamendu orokorra ezartzen duen maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua aplikatuz onetsi ere. Hori guztia,

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan Nafarroako Foru Komunitateari arlo honetan ematen zaizkion eskumenak erabiliz.

B) Onespenaren premia eta egokitasuna.

Arte plastikoen eta diseinuren arloko lanbide ikasketetako tituluen irakaskuntza komunak onetsi ondoan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak curriculumaren garapena zehaztu behar du Foru Komunitatearen esparruan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 47. artikuluan aurreikusten diren eskumenak erabiliz. Hori guztia, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 6. artikuluan, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren 6 bis artikuluan eta Arte plastikoen eta diseinuaren arloko lanbide ikasketen antolamendu orokorra ezartzen duen maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatzen denari jarraikiz. Kontua da Nafarroako ekoizteko eta zerbitzuak emateko sistemaren berezko ezaugarriak identifikatzea, eta curriculumean elementuak sartzea (xede orokorrak, ikasketzaren emaitzak, edukiak, ebaluazio irizpideak, orientazio pedagogikoak) lanbide kualifikazioak bat egin dezan eskaerarekin eta izan dadin Nafarroari egokituia.

C) Arauaren helburuak.

Prestatzea Ikus-entzunezko arte grafikoetako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikariaren curriculumari buruzko Foru Dekretua, curriculum hori egokitzen duena bere eskumeneko lurraldearen errealitate sozio-ekonomikora eta garapen ekonomiko eta sozialaren arloko ustekizunetara, irakaskuntzek bat egin dezaten aldiro Nafarroako beren inguruneko gizarte eta ekoizpen sektoreen kualifikazio premiekin, 2017/2018 ikasturtetik aitzina ezarri ahal izateko.

D) Izan litezkeen bestelako aukerak, erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Ez da balizko bestelako konponbiderik aurreikusten.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an

Prestakuntza Zerbitzuko zuzendaria.


Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Hezkuntza / Educación
Lanbide Heziketaren Zerbitzua
Servicio de Formación Profesional

Esther Monterrubio Ariznabarreta